

1. 1. Zerbitzuaren aurkezpena

Enplegu zentroak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren funtsezko ekintzetako bat dira. Zerbitzuaren erabiltzaileei, arreta individualizatua eta ezpezializatua ematea helburuetako bat da.

Espazio fisiko egonkor bat da, lana bilatze prozesuan dauden pertsonen baliabide desberdinak eskura jartzen zaizkio: orientazio aholkularia beraien prozesuan laguntzeko, tresna informatikoak, materialak, eguneko prentsa, inguruko lan eskaintzak.. eta dena arreta pertsonalaren bidez.

Orientazio Lanetan, banakako arreta, lana bilatzeko prozesuetan baliogarria eta garrantzitsua da, baina ez da nahikoa. Pertsonak, gaitasun eta aukeren jarraipena behar izanez gain, lana bilatzeko baliabide eta errekursoak behar dituzte, eskura, erabilera libre baten bidez, bilaketa aktiboa eta ikasitako teknika desberdinak garatzeko aukera izanda. Hau guztia orientazioaren profesional baten laguntza eta tutoretzarekin.

Hau da Enplegu Zentroa.

2. Jarduerak

Enplegu zentroan eskaintzen diren jarduerak hauek dira:

- Lana bilaketa errazten duten informazio eta komunikazio-tresnen ezagutza
- Pertsonaren Plan pertsonalean agertzen diren ekintzen garapenari laguntzeko ekintzak.
- Pertsonen laneratze estrategia bideratzeko ekintza zehatzak.

Zehazki, zerbitzu honetan garatzen diren ekintzak hauek dira:

- Pertsonen enplegurako ibilbidearen ekintzari lotuta dauden banakako informazio, aholkularitza eta orientazioa,
- Lanbideko Web orriaren funtzionamenduari buruzko informazioa, enplegurako eta prestakuntzarako aholkularitza. Kontsulta: www.

lanbide.euskadi.net. Webgune honetan pertsonen pasahitzaren bidez, beraien enplegu eskaera berriak ahal izango dute, euren egoeran aldaketak egin, ikastaro eta lan eskaintzetan izena eman, Diru sarrerak bermatzeko errentaren informazioa kontsultatu, enplegua bilatzeko materialei buruzko informazioa eskuratu, eta abar....

- Lanpostu publiko eta lan poltsei buruzko informazioa eskuragarri izan.
- Lana bilatzeko informazio garrantzitsua eta eguneratuta eskuragarri.
- IT tresnak erabiltzeko aukera, prestakuntza Baliabideak, gizarte eta komunitatearen baliabideak, internet kudeaketa, posta elektronikoa eta bestelako laguntza programak, pertsonen eskuragarri..
- Kurrikuluma, aurkezte gutunak eta norberaren hautagaitza aurkezteko laguntza eta orientazioa.
- Lan-merkatuaren berriak, Lan eskaintzen informazio, prestakuntza-aukerak, inguruko enpresen informazioa, aldi baterako enplegua, aldizkari ofizialak, sektorekako hitzarmenen zerrenda ... formato desberdinetan, informazio eguneratua: Informazio panelak eta lan eskaintzeen buruzko dosierak, ikastaroak eta lanerako prestakuntza eta datu-base baliabideak, eta gizarte eta lan baliabideen guneak.
- Eta beste gai batzuk: norberaren pasahitza lortzeko laguntza eskainiko da. Kurrikulimaren eguneratzea edo berria egitea. Web orrialdetan inskripzioa egiten laguntzea. Maila bidez kurrikuluma bidaltzen laguntzea. Eta pertsona bakoitzak behar duen guztia, lana bilatze edo hobetze norberaren prozesuan laguntzeko ekintza guztiak.